

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

187.363 zergadunek ostegun honetan, apirilak 7, 2010eko Errentaren Aitorpenaren proposamena etxean jasoko dute

Kanpaina apirilaren 15etik ekainaren 24ra izango da, baina apirilaren 7tik aitorpenak internet bidez aurkez daitezke

Miércoles, 06 de abril de 2011

Álvaro Miranda Simavilla bigarren presidenteordeak eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eta José Ignacio Pérez de Albéniz Nafarroako Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak 2010eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenaren kanpaina aurkeztu dute gaur goizean. Kanpaina ostegun honetan, apirilak 7, hasiko da, 255.968 zergaduni dagozkien 187.363 proposamen etxera bidaliko baitira (kopuru osoaren %54). Proposamena etxean jasotzen ez dutenek apirilaren 7tik aurrera internet bidez aurkez dezakete, www.navarra.es helbidean.



2010eko Errentaren kanpainako kartela.

Proposamenak bidaltzeaz gain, apirilaren 15etik ekainaren 24ra, bi egunak barne hartuta, zergadunak, aurretzeko hitzordua eskatuta, Ogasuneko bulegoetara eta entitate laguntzaileetara joan daitezke aitorpena egiteko. Aurretzeko hitzordua apirilaren 13tik aurrera eska daiteke 948 505 505 eta 948 505 506 telefono-zenbakietan eta internet bidez. Aurten 29.000 hitzordu ematea aurreikusi da. 2010eko Errentaren Kanpainari buruzko informazio guztia herritarren eskura dago zergadunak artatzeko telefono-zenbakian, 948 50 51 52, Nafarroako Gobernuaren web orrian, Ogasunaren bulegoetan eta Lurreko Telebista Digitalean (TDT).

Ogasunak aurten bidali dituen 187.363 proposamenetatik (iaz baino 4.157 gehiago), hamar zergadunetik zazpiti negatiboa edo "itzultzekoa" atera zaie. Zergadunen aldeko zenbatekoa 77,5 milioi eurokoa da guztira, eta aste honetan bertan itzuliko da.

Zergadunei proposamenak bidaltzeko sistema guztiz egokia dela ikusi da, zergadunek horietatik %85 zuzenean onartzen baitituzte. Bidalitako proposamen guztietatik 39.694 elektronikoak dira, iaz baino 13.094 gehiago. Hain zuzen ere, aitorpena internetez bidaltzeko sistema hau iaz jarri zen abian. Zergadunek etxean eskutitza jasoko dute

proposamena nola jaitsi dezaketen azalduz, eta Ogasunaren web orriko datu fiskalen orria ere hartuko dute.

Berrikuntza moduan, aurtan, gainera, zergadunei 12.419 eskutitz bidaliko zaizkie. Ogasunak zergadun horiei buruzko datu gehienak ditu, baina informazio osagarriren bat behar du proposamena egin ahal izateko. Ogasunak aukera eskaintzen du apirilaren 7tik 29ra, internetez edo telefonoz, beharrezko informazioa emateko, kasuan kasuko aitorten-proposamena egin ahal izateko.

Beste herrialde batzuetako langileentzat, Nafarroako Gobernuak informazio berezitua duten foiletoak argitaratu ditu gaztelaniaz, ingelesez, arabieraz eta errusieraz, zerga hori azaltzeko eta betebeharrak behar den moduan betetzen laguntzeko. Era berean, aurreko urteetan bezala, zergadunengandik jasotako diruaren jomuga zehazten duten txartelak argitaratu dira. Informazio hori aitorten-proposamenarekin iritsiko da etxeetara, eta Ogasun bulegoetan ere eskuragarri egongo da.

Aitortenak egin eta jasotzeko zerbitzua emateko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zergadunen eskura 73 pertsonako taldea eta komunikabide materialen eta informatikoen multzo handia jarri du sei bulegotan, Iruñean, Barañainen, Burlatan, Lizarran, Tafallan eta Tuteran. Aurreko urteetan bezala, 22 entitate aitorten automatikoak egiten lankidetzan arituko dira, eta aitortenak egiteko 1.300 puntu egongo dira. Ogasunak itzulketen %90 uztailaren 1a baino lehen egiteko konpromisoa hartu du. Bestalde, herritarrek ordainketa-konpromisoak %50eko bi txandatan bete ditzakete: 2011ko uztailaren 4an eta azaroaren 18an.

224 milioi euro itzultzeetan

Gaur aurkeztutako datuen arabera, Ogasunaren ustez, Errentaren Kanpainan 224 milioi itzuliko zaizkie zergadunei. Kopuru horretatik 77,5 milioi bihar, osteguna, apirilak 7, sartuko dira aitorten-proposamena etxean jaso dutenen kontuetan (itzuli beharreko kopuru osoaren %34,6). Horrez gain, Ogasunak, uztailaren 1a baino lehen, itzuleren %90 egiteko konpromisoa hartu du. Hori dela eta, Ogasunak apirilaren 7tik uztailaren 1era itzuliko duen kopurua 201,6 milioi eurokoa izango da.

Bestalde, Ogasunak kanpaina honetan jasoko duen zenbatekoa, hau da, ordaintzea egokitzen zaien aitorten zenbatekoa, 110 milioi eurokoa da. Kopuru hori bi epetan ordaindu daiteke (uztailaren 4an eta azaroaren 18an).

Modu horretan, 2010eko Errentaren Kanpainak 114 milioi euroko saldo negatiboa eragingo du foru-kutxetan.

Berrikuntzak legerian

2010eko Errentaren Aitorpenean hainbat neurri fiskal aplikatuko dira, besteak beste: %18ko aurrezkiaren tributazioa mantentzea 6.000 eurokoak baino txikiagoak diren errenten kasuan (zergadunen %93), 2009an indarrean sartu zen neurria, eta tributazioa %18tik %21era handitzea 6.000 eurotik gorako errenten kasuan. Lan-errendimenduen kasuan, tributaziotik salbuetsita dago enpresa berean berriro ere kontratatzen dituzten langileak kaleratzearen ondoriozko kalte-ordaina, eta langileen lantokirako garraio kolektiboa ez da hartuko gauzak egindako ordainketa moduan. Horrez gain, 2010eko zergaldirako, enplegua sortzearen ondoriozko dedukzioa %30 handitu da. Kriariaren aurkako neurrien barruan, tributaziotik salbuetsita daude laguntza publiko hauek: Renove Hogar 2010; Renove Auto Navarra 2010; Turismo-ibilgailuak eta ibilgailu astunak puntuan jartzea; etxeko zerbitzurako eta adingabeen, adinekoen eta mendeko moderatuen akonpainamendurako pertsonak kontratatze laguntzak; eta "Ekintzailearen Beka" programa. Etekin garbia zehaztearen esparruan, moduluen arabera tributatu duten nafarrek,



Miranda presidenteordea eta José Ignacio Pérez de Albéniz, 2010eko Errentaren Kanpaina aurkezteko ekitaldian.

batez ere nekazariak eta abeltzainak eta autonomoak, sektoreari laguntzeko onetsitako moduluen beherapen orokorretatik onurak lortuko dituzte: %5 enpresa-jardueretarako eta %12 nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako.

Zergadunen ezaugarriari dagokienez, errentaren aitortzea aurkeztu behar dute 2010ean 11.250 euro gordineko laneko etekinak edo handiagoak lortu zituztenek; kapital higigarriaren etekinak eta ondare-handikuntzak, 1.600 euro gordineko atxikipena edo handiagoa dutenak; beste errenta batzuk jasotzen dituzten zergadunak (enpresaburuak eta profesionalak, errentatzaileak, etab.), eta edonola ere, aitortpen bateratua egitea hautatzen bada.

Datu nagusiak eta dedukzioak

Nafarroako Ogasunak egindako txosten soziometrikoen arabera, zerga-zamarik handiena likidazio-oinarri handienak dituzten zergadunak jasaten dute. Modu horretan, 2009ko datuak erreferentzia moduan hartzen badira, 24.000 eurotik gorako errentak dituzten zergadunak, kopuru osoaren %29k, PFEZren % 81,6 jasaten dute.

Iazko Errentaren Kanpainako datuei erreparatuz, zergadunak aplikatzen dituzten dedukzio eta murrizketa nagusiak hauek dira: beherapen fiskala seme-alabengatik, 154.716 nafar ukitu zituena, 292,34 milioi euroekin; dedukzioa lanarengatik, 298.276 onuradunekin eta 306,36 milioi euroekin; dedukzioa etxebizitzarengatik 111.686 nafarrek aplikatu zuten eta 138,74 milioi eurokoa izan zen; eta alarguntasun-pentsioen ondoriozko dedukzioa, 11.269 onuradunekin eta 9,8 milioi euroekin.